



Haizearen seinale, denboraren seinale

Haize-orratzak Bizkaian

Señales del viento, señales del tiempo

Veletas en Bizkaia



Bizkaia

*el pobaleko burdinola
ferrería de el pobal*



Haizearen seinale,
denboraren seinale

Haize-orratzak Bizkaian

Señales del viento,
señales del tiempo

Veletas en Bizkaia

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Haize-orratzak Bizkaian	6
Bizkaiko haize-orratzen jatorriari buruzko zenbait gogoeta	10
Gure kanpandorreen historiari buruz	14
Haize-orratzak, oso gutxi aztertutako gaia	16
Udal haize-orratzei buruz	20
Barrokoa, haize-orratzen goraldia Bizkaian	24
Haize berriek birarazten dituzte gure haize-orratzak	30
Arte-instalazio bat eta sei haize-orratz El Pobalen	34
Jose Pablo Arriagaren sorkuntza ola-gune honetarako	36
Bilboko Euskal Museoko haize-orratzak	40

Índice

Presentación	5
Veletas en Bizkaia	7
Algunas reflexiones sobre el origen de las veletas en Bizkaia	11
En torno a la historia de nuestros campanarios	15
Las veletas, un tema escasamente estudiado	17
A propósito de las veletas municipales	21
El Barroco, época de auge de las veletas en Bizkaia	25
Rolan nuevos vientos para nuestras veletas	31
Una instalación artística y seis veletas en El Pobal	35
La creación de Jose Pablo Arriaga para este espacio ferrón	37
Las veletas del Euskal Museoa de Bilbao	40

Aurkezpena

Haize-orratzek funtzio praktikoa betetzen dute, haizeen norabidea adierazten baitute, eta haien diseinuak ere asmo estetiko argia du, eraikinen gailurra edertzen duten elementu apaingarriak bihurtzen dituelarik. Gainera, irudimen kolektiboan ezarritako balio sinboliko ukaezina dute. Alde horretatik, haize-orratzak "beste garai baten seinaleak" dira eta iraganerako leiho bat irekitzen dute beren ikonografia berdingabearen bidez.

Burdinaz landuta, haize-orratzek gaur egun olagizonen eta errementarien belaunaldiek egin-dako lanaren -ia beti anonimoa- lekukotasuna ematen dute, El Pobaletik balioetsi nahi dugun lanbide baten trebetasun eta sentsibiltate artistikoarena.

Bilboko Euskal Museoaren bildumako haize-orratz multzo batetik abiatuta, Burdinolak atsegin handiz inauguratzen du erakusketa berezi bat, bere 20. urteurrenaren testuinguruan.

Sei ale eder dira, XVIII. eta XIX. mendeetakoak eta objektu mota horietan ohikoak diren apaindura-errepertorioak biltzen dituzte, hala nola oinarrietako esfera bereizgarriak, goian ezarritako gurutzeak, alderdi mugikorrean isatsa edo estandarteak duten geziak eta irudi antropomorfoak edo animalia bitxiak, izaera fantastikokoa kasuren batean.

Berriro ere publikoari erakutsi ahal izateko, formatu ez-konbentzional batean pentsatu genuen eta Garutik taldearen sormen-bultzada eta artista garaikide baten begirada konplizea lagungarri izateko zortea izan dugu, Jose Pablo Arriaga eskultore markinarrarena, bere ibilbidean tradizioarenganako errespetua eta hura modu intimo eta abangoardistan berrinterpretatzeko gaitasuna batzen dituen artista. Jose Pablok objektu enblematiko horien funtsa harrapatzen duen arte-instalazio bat eratu du: zur kurbatuzko pieza inguratzaile batzuek, artistaren lanaren bereizgarri direnak, ezarritako formei desafio egiten diete eta burdinazko haize-orratz horiek barruan hartzen dituzte orain integratzen diren ola-gunearekin harmonia sotilean.

Jesús Muñiz Petralanda artean historialariak egin du erakusketa honetako katalogoa. Harekin lankidetzat estua eta emankorra izan dugu aspalditik, "Burdineria artistikoa Bizkaian: funtzionaltasuna eta edertasuna" hedapenerako programaren bidez. Jesús-en lanak Bizkaiko haize-orratzen gaiari buruzko lehen hurbilketa historikoa izan nahi du -orain arte gutxi ibilitako bidea da-, baita haize-orratzen ondare material aberatsaren errepasoa ere. Burdinari lotutako gure ondarea ezagutzeko beste ekarpen bat, ikertzaile gisa egindako ibilbide sendoari gehitzen duena.

Eta, beste behin ere, Santi Yaniz argazkilariak bere narratiba bisual bereziarekin lagundu digu proiektu berri honetan. Irudi inspiratzaileak eta poesiaz beteak eman dizkigu, haize-orratzen ahalmen estetikoak aztertzen dutenak eta argitalpen hau lengoia propio batez ilustratzen dutenak.

Luis Padura maisu errementariak, hasiera-hasieratik burdinola museo gisa hainbeste zor diot, bat egingo du balioa emateko ekimen honekin, eta bere jakintza eta esperientzia partekatuko ditu haize-orratz horien zaharberritze zientifiko eta artisauari ekiteko, kasu batzuetan galdu dituzten elementuak lehengoratu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen hau aurrera eramatea ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei. Bereziki, Bilboko Euskal Museoari, El Pobaleko Burdinolari emandako konfiantzagatik; izan ere, El Pobal harro dago haize-orratzen bilduma horren aldi baterako etxea izateaz ospakizun bereziko urte batean.

MARTA ZABALA LLANOS

Presentación

Las veletas cumplen una función práctica al señalar la dirección de los vientos pero su diseño denota también una clara vocación estética, convirtiéndolas en reclamos decorativos en la cúspide de los edificios que engalanan. Poseen además un innegable valor simbólico, presente en el imaginario colectivo. En este sentido, las veletas son verdaderas "señales de otro tiempo" que nos abren una ventana al pasado a través de su iconografía única.

Forjadas en hierro, las veletas dan testimonio hoy del trabajo -casi siempre anónimo- desempeñado por generaciones de ferrones y herreros, de la destreza y sensibilidad artística de un oficio que desde El Pobal queremos poner en valor.

A partir de un conjunto de veletas pertenecientes a la colección del Euskal Museoa de Bilbao, la Ferrería se complace en inaugurar una muestra muy singular en el contexto de su 20º aniversario como museo.

Se trata de seis preciosos ejemplares fechados entre los siglos XVIII y XIX, que reúnen el repertorio ornamental habitual en este tipo de objetos, como son las características esferas en las bases, las cruces en lo alto, las flechas con cola o estandarte en la parte móvil, y curiosas figuras antropomorfas o de animales, de carácter fantástico en algún caso.

Para mostrarlas de nuevo al público pensamos en un formato no convencional y hemos tenido la suerte de contar con el impulso creativo del equipo de Garutik y la mirada cómplice de un artista contemporáneo, el escultor de Markina Jose Pablo Arriaga, que aún en su trayectoria el respeto a la tradición y la capacidad de reinterpretarla de una forma íntima y vanguardista. Jose Pablo ha concebido una instalación artística que captura la esencia de estos emblemáticos objetos: unas envolventes piezas de madera curvada, que son un distintivo de su obra, desafían las formas establecidas y acogen en su interior estas veletas de hierro, en sutil armonía con el espacio ferrón en el que ahora se integran.

El catálogo que acompaña esta exposición es obra del historiador del arte Jesús Muñiz Petralanda, con quien mantenemos desde hace años una estrecha y fructífera colaboración a través del programa de difusión "Herrajes artísticos en Bizkaia: funcionalidad y belleza". El trabajo de Jesús quiere ser un primer acercamiento histórico al tema de las veletas en Bizkaia, un camino escasamente transitado hasta el momento, y un repaso a su rico legado material. Una nueva aportación al conocimiento de nuestro patrimonio ligado al hierro, que suma a su firme trayectoria como investigador.

Y una vez más el fotógrafo Santi Yaniz nos ha acompañado en este proyecto con su particular narrativa visual, ofreciéndonos unas imágenes inspiradoras y llenas de poesía, que exploran el potencial estético de las veletas e ilustran con un lenguaje propio esta publicación.

El maestro herrero Luis Padura, a quien tanto debe la Ferrería desde sus inicios como museo, se va a sumar también a esta iniciativa de puesta en valor, compartiendo de nuevo su saber y experiencia para acometer la restauración científica y artesanal de estas veletas, restituyendo los elementos que en algunos casos han perdido.

Finalmente queremos agradecer a todas las personas y entidades que han hecho posible llevar a cabo este trabajo. De manera singular, al Euskal Museoa de Bilbao por la confianza depositada en la Ferrería de El Pobal, que se enorgullece de ser el hogar temporal de esta colección de veletas en un año de especial celebración.

MARTA ZABALA LLANOS

Veletas en Bizkaia



Haize-orratzak Bizkaian



Atenasko Haizeen Dorrearen berreraikitzea, Stuart eta Revelten arabera, 1762.
Reconstrucción de la Torre de los Vientos de Atenas según Stuart y Revett, 1762.

Definizioaren arabera haize-orratzak eremu altu batean kokatuta eta gezi baten forma hartu ohi duen mekanismo birakari baten bidez haizearen norabidea adierazteko erabiltzen diren tresnak, dira, eskuarki metalezkoak. Horraino, denak ados (edo ia, berehala ikusiko dugunez, tresneriaren ustezko funtzionalitate bakarrari buruz).

Jatorriari dagokionez, historiak esaten digu mekanismo horiek Antzinatean sortu zirela, baina erreferentzia guztiak ez datoz bat ezagutzen den lehen haize-orratza zein izan zen identifikatzean. Iturri gehienak bat datoz, esaten baitute ohore hori Atenasko Agorako Haizeen Dorreari egokitu zitzaiola, Zirrusko Androniko astronomoak K.a. I. mendearen lehen erdian sortua. Eta, hain zuzen, egiturak dorre oktagonalek bat zuen, bere aurrealdeetan haizeen itxura zuten erliebeek apaindua, eta aire-korronteen jatorriari buruzko informazioa ematen zuen Uhandre baten irudi birakaria zuen goialdean. Beraz, ia baldintza guztiak betetzen zituen, adierazlearen formagatik izan ezik, ohiko orratza baino askoz sormenezkoagoa baitzen, Atenas zibilizatutik espero zitekeen moduan, artearen sehaska handienetako bat baitzen. Beste kontu bat da zergatik aukeratu zen horretarako Uhandre bat (itsas izaki bat, azken batean, izaki hegaldun bat jartzea egokiagoa izango bazen ere), baina ez dezagun utz jotzen gaituen lehen brisak eraman gaitzan, eta itzul gaitezen gure diskurtsora.

Beste iritzi batzuen arabera, dinastia ptolomeotarrak hartu zien aurea atenastarrei, Alexandriako Itsasargi ospetsua Ptolomeo I.aren estatua birakari batekin koroatu zutenean, K.a. III. mendean, deskribapen guztiak horretan bat ez datozen arren. Egitura kolosal hori Egiptoko gobernariaren eskultura batez burututa zegoen, baina, antza denez, puntu kardinalen kokapenaren inolako adierazlerik gabe, eta horrek pentsarazten digu beharbada haren ustezko funtzionaltasun meteorologikoa ez zela hautaketa eragin zuen lehentasuna. Agian, propagandarekin lotuagoa zegoen beste asmo baten ondoriozkoa zen, eta horrek, askotan, justifikatuko luke etorkizunean haize-orratzak gure arreta atxikitzeke karteldegia deigarri baten edo neonezko iragarkien aurrekari gisa jartzea (arrazoi horrek azaltzen du lehen paragrafoan haize-orratzaren definizioari buruz egin dugun oharra).

Aitzindaritzaren norena den alde batera utzita, kontua da asmakuntzak denbora asko beharko zuela Bizkaiko lurraldean hartua izateko.


Veletas en Bizkaia

De acuerdo con su propia definición, las veletas son instrumentos, generalmente de metal, ubicados en un espacio elevado y destinados a indicar –o señalar– la dirección del viento, mediante un mecanismo giratorio que suele adoptar la forma de una flecha. Hasta aquí, todos de acuerdo (o casi, como veremos enseguida respecto a la presunta única funcionalidad del artilugio).

Acerca de su origen, la historia nos dice que estos mecanismos surgieron en la Antigüedad, aunque no todas las referencias se ponen de acuerdo en identificar cuál fue la primera veleta conocida. La mayoría de las fuentes coinciden en afirmar que tal honor correspondió a la Torre de los Vientos del Ágora de Atenas, ideada por el astrónomo Andrónico de Cirro, en la primera mitad del siglo I a.C. Y en efecto, la estructura constaba de una torre octogonal decorada en sus frentes por relieves que representaban a los vientos y estaba coronada por una figura rotatoria de un Tritón que informaba sobre la procedencia de las corrientes de aire. Cumplía pues con casi todos los requisitos, salvo por la forma del indicador, mucho más creativa que la habitual saeta, como cabría esperar de la civilizada Atenas, una de las grandes cunas del arte. Cuestión aparte es por qué se eligió para este menester a un Tritón (criatura marina, al fin y al cabo, cuando hubiese sido más propio coronarla con una criatura alada), pero no nos dejemos arrastrar por la primera brisa que nos sople y volvamos a nuestro discurso.

Según otras opiniones, a los atenienses se les adelantó la dinastía ptolemaica al coronar el famoso Faro de Alejandría con una estatua giratoria de Ptolomeo I con el mismo propósito, en el siglo III a. C, aunque no todas las descripciones coinciden en este punto. El hecho de que la colosal estructura rematase con una escultura del gobernante de Egipto sin que al parecer hubiese ningún indicativo de la posición de los puntos cardinales nos sugiere que su presunta funcionalidad meteorológica tal vez no fue la prioridad que determinó su elección. Quizás respondió a algún otro propósito de carácter más propagandístico, circunstancia que en no pocas ocasiones justificaría en el futuro la colocación de veletas como precedentes de una llamativa cartelería o anuncios de neón para retener nuestra atención (razón que explica la acotación que hicimos al respecto de la definición de veleta en el primer párrafo).

Con independencia de quién tuviese la primicia, lo cierto es que el invento tardaría bastante tiempo en adoptarse en el territorio de Bizkaia.



Atenasko Haizeen Dorrea gaur egun.
Torre de los Vientos de Atenas en la actualidad.

Bizkaiko haize-orratzen jatorriari buruzko zenbait gogoeta

Baina noizkoa da Bizkaiko lehen haize-orratza eta non altxatu zen? Bada, galdera horrentzat ez dugu erantzunik oraingo. Ez da orrialde urri hauen helburua gaiari buruzko teoria sendoak ezartzea, horrek pazientzia handiko bilaketa dokumentala egitea eskatuko bailuke, gure oraingo helburua gainditzen duen kontua, eta, beraz, intuizioaren putz leunari kulunka gaitzan utziko diogu.

Ezbairik gabe, haize-orratz baten funtzio nagusia, haizeari buruzko adierazpena, erabilgarria izan zen gure arbasoentzat; hasieran, lehen sektoreko jardueretan erabiliko ziren batez ere (azken batean, jatekoa ziurtatzea izan da beti lehentasuna). Harrapakaritzaren hutsaren garaia gainditu ondoren, eta jadanik ekoizpen-jardueretan murgilduta zeudenean, eguraldi-aldaketei adi egon behar izan zuten, haien esfortzuak alferrikakoak izango ez baziren harri-erauntsien, izozteen, uholde-euriteen edo lehorteen erasoen ondorioz; fenomeno horiek lotura zuzena izaten dute aire-korronteen jatorriarekin.



Gizakundea Komentuko haize-orratza, Bilbo.
Veleta del Convento de la Encarnación, Bilbao.

Egia da, hala ere, gure lurraldearen izaera orografiko menditsu samarrak eta klima hezeak (krisi klimatikoa agertzen hasi arte behintzat) eragin zuela Bizkaia inoiz ez izatea nekazaritzarako indar handiegikoa, eta, horregatik, uste dugu agian ez zirela izan gure baserritarren arbasoak haize nagusiak zein ziren edo une oro nondik jotzen zuten jakiteko interesa izan zuten lehenak. Zentzuzkoagoa dirudi pentsatzeak ekimen hori, lehenengoak ez izan arren parean ibilita behintzat, itsasoarekin lotutako bizkaitarrei egokitu zitzaielara; hau da, gure oparotasunaren zati inondik ere ez mespretxagarri baten iturriari, azken finean. Arrantzale, garraiolari eta merkatarien lanbideak oso errotuta egon ziren Bizkaiko ekonomian, eta haien zoria, edo biziraupen hutsa, ez zen inondik inora Eolo jaingoaren gutuziekiko loturarik gabea. Horregatik imajinatzen dugu litekeena dela gure lehenengo haize-orratzak itsas brisen -edo itsas haizeteen- erritmoan mugitu izana.

Algunas reflexiones sobre el origen de las veletas en Bizkaia

Pero, ¿de cuándo data la primera veleta vizcaína y dónde se alzó? Pues esta es una pregunta para la que de momento no tenemos respuesta. No es el propósito de estas pocas páginas establecer sólidas teorías al respecto, pues eso exigiría una paciente búsqueda documental que excede nuestro objetivo actual, por lo que simplemente nos dejaremos mecer por el suave soplo de la intuición.

Sin duda la función primigenia de una veleta, la indicación del viento, debió de resultar de utilidad para nuestros antepasados, que inicialmente se dedicarían fundamentalmente a actividades del sector primario (al fin y al cabo, asegurarse la pitanza siempre ha sido lo prioritario). Una vez superada la etapa meramente depredadora e inmersos ya en actividades productivas, debieron de estar muy pendientes de los cambios del tiempo para evitar que sus esfuerzos resultaran baldíos en previsión de tormentas de pedrisco, heladas, lluvias torrenciales o sequías, fenómenos a los que no suele ser ajeno el origen de las corrientes de aire.

Bien es cierto, sin embargo, que el carácter bastante montañoso de la orografía y el clima húmedo que caracterizaba a nuestro territorio (al menos hasta que la crisis climática ha comenzado a asomar por el horizonte), nunca hizo de Bizkaia una gran potencia agrícola, por lo que sospechamos que tal vez no fueron los antepasados de nuestros "baserritaras" los primeros que se interesaron por conocer cuáles eran los vientos predominantes o de dónde soplaban en cada momento. Parece más lógico suponer que esa iniciativa pudo corresponder, si no en primicia, al menos de forma paralela, a los vizcainos vinculados con la mar, al fin y al cabo, fuente de una parte nada despreciable de nuestra prosperidad. Los oficios de *arrantzale*, transportista o comerciante estuvieron muy implantados en la economía vizcaína y su fortuna, o incluso su simple supervivencia, no era en modo alguno ajena a los caprichos del dios Eolo. Por eso imaginamos que nuestras primeras veletas pudieron moverse probablemente al compás de las brisas –o vendavales– marinos.

Cabe suponer que, en esos contextos, el interés por contar con veletas era compartido por una mayoría y asumido como una tarea común, y que, en consecuencia, fueron ubicadas en los que debieron ser nuestros primeros edificios públicos: las iglesias parroquiales. Todavía hoy, cuando los medios para averiguar de dónde procede el viento están literalmente al alcance de casi todos (mediante alguna app de las muchas que llevamos incorporadas en ese diabólico aparato del que casi no sabemos desprendernos), son varias las parroquias costeras que bajo las consabidas cruces que rematan sus torres poseen una veleta: Santurtzi, Portugalete, San Nicolás de Bilbao (parroquia al fin y al cabo de un arrabal del barrio bilbaino de los pescadores), Plentzia o Lekeitio. También es verdad que, al menos



Erandioko Errementerizarra baserriko haize-orratza.
Veleta del caserío Errementerizarra de Erandio.

Pentsa daiteke, testuinguru horietan, haize-orratzak edukitzeko interesa gehiagoak zuela, zeregin komuntzat hartzen zela, eta, ondorioz, seguruenik gure lehen eraikin publikoak izan ziren haietan kokatu zirela: parrokia-elizetan. Gaur egun, oraindik ere, haizea nondik datorren jakiteko bitartekoak literalki ia guztien eskura dauden honetan (guregandik aparte edukitzen asmatzen ez dugun gailu deabruzko horretan sartu ditugun app ugarietako baten bidez), kostako parrokia batzuek haize-orratz bat dute dorreak errematatzen dituzten ohiko gurutzeen azpian: Santurtzi, Portugalete, Bilboko San Nikolas (azken batean, arrantzaleen auzo bilbotarreko errebal bateko parrokia), Plentzia, Lekeitio... Egia da, halaber, gaur egun behintzat, Algorta, Gorniz, Bermeo, Mundaka eta Ondarroan ez dagoela halakorik, baina horrek ez du esan nahi, derrigorrez, lehen ez zutenik (zalantzan jartzen dugun kontua, bai).



2005ean COAVNen egindako erakusketaren eskuorria.
Folleto de mano de la exposición celebrada en 2005 en el COAVN.

Zoritxarrez, askotan jakin izan dugu haize-orratzak egon zirela dorreetan edo kanpai-hormetan, eta horiek kendu egin zirela zaharberritzeak edo berritzeak egin zirenean; kasuren batean, orain dela gutxi. Itsasertzean dauden elizak ez badira ere, bi adibide gogorazariko ditugu: Begoñako basilikako dorreko haize-orratza desagertu zen lehen Gerra Karlistaren ondoren berritu zutenean (gurutze handi batez burututako Basterraren gaur egungo fatxadan elementu hori ere alde batera utzi zen), eta, berrikiago, Bilboko Mesedeetako Komentuko kanpai-hormaren goialdekoa kendu zuten. Ikerketa sakon batek, ezbaierik gabe, nabarmen handituko du falta diren haize-orratzen kopurua, eta kontu hori eraikin zibiletara ere zabal daiteke, geroago ikusiko dugunez.

Azken urteotan, arreta eman zaie kanpandorreei eta horietan babesten diren soinu-tresnei. Lehenengoei buruzko erakusketa bat egin zen COAVNen 25. urteurrenean, eta, ondare gisa, Barrio Loza irakasle zendu berriaren (norena, bestela?) testu labur bat utzi zen; kanpaiak dagokienez, inbentario bat eta erakusketa bat egin ziren urte berean, 2005ean. Dorreak burutzen dituzten gurutzeak eta haize-orratzak, ordea, beren txandaren zain geratu ziren, pazientziaz.

actualmente, están ausentes en otras como Algorta, Gorliz, Bermeo, Mundaka u Ondarroa, lo que desde luego no significa necesariamente que no las tuvieran con anterioridad (cosa que ciertamente dudamos).

Por desgracia, no pocas veces, tenemos constancia de la existencia previa de veletas en torres o espadañas que fueron apeadas con ocasión de restauraciones o renovaciones, incluso en fechas recientes. Aunque no sean iglesias situadas en el litoral recordamos un par de ejemplos: la desaparición de la veleta de la torre de la basílica de Begoña cuando fue renovada tras la primera Guerra Carlista (en la actual fachada de Basterra rematada por una gran cruz también se prescindió de este elemento) o la más reciente eliminación de la que coronaba la espadaña del Convento de la Merced de Bilbao. Una investigación exhaustiva sin duda multiplicará notablemente el número de veletas ausentes, cuestión que es plenamente extensible a los edificios de carácter civil, según veremos más tarde.

En los últimos años se ha prestado alguna atención al tema de las torres-campanario y los instrumentos sonoros que se resguardan en ellas. A las primeras se dedicó una exposición con motivo del 25 aniversario del COAVN, que dejó como legado un breve texto del recientemente fallecido (¿quién si no?) profesor Barrio Loza; de las campanas se hizo un inventario y una exposición aquel mismo año de 2005. Las cruces y veletas que aún rematan las torres, sin embargo, esperaban pacientemente su turno.

El gallo, un clásico en la iconografía de las veletas

El gallo es, con diferencia, el animal que decora un mayor número de veletas. Su temprano canto anuncia la llegada del sol, por lo que suele asociarse con los conceptos de alerta y vigilancia. Su simbolismo, unido al episodio de la negación de San Pedro, sugiere la necesidad de permanecer atentos a nuestras debilidades. El primer ejemplo conocido data del año 820, cuando Ramperto, obispo de Brescia, ya dispuso que se colocara uno en la torre de su iglesia. Posteriormente fue elegido, a mediados del siglo IX, para coronar el primitivo campanario de la basílica de San Pedro por disposición del papa León IV. Se atribuye a su sucesor, Nicolás I, una orden para que coronase las torres cristianas.



Mungiatik datorren Euskal Museoko haize-orratz baten xehetasuna.
Detalle de una veleta del Euskal Museoa procedente de Mungia.

Oilarra, klasiko bat haize-orratzen ikonografian

Oilarra da, alde handiz, haize-orratz gehien apaintzen dituen animalia. Haren kantu goiztiarrak eguzkia noiz iritsiko den iragartzen du, eta, beraz, alerta eta zaintza kontzeptuekin lotu ohi da. Haren sinbolismoak eta San Pedoren ukapenaren gertaerak gure ahuleziei adi egoteko beharra iradokitzen dute. Ezagutzen den lehen adibidea 820. urtekoa da, Ramper-tok, Besciako gotzainak, bere elizaren dorrean bat jartzea erabaki zuenean. Geroago, IX. mendearen erdialdean, Leon IV.a aita santuak San Pedro basilikako kanpandorre zaharrerako aukeratu zuen. Haren oinordeko Nikolas I.ari dorre kristauen gainaldean jartzeko agindua eman izana egozten zaio.



Plentziako Santa Maria Magdalenako kanpandorrea, 1526 ingurukoa.
Torre campanario de Santa Maria Magdalena de Plentzia, h. 1526.

Gure kanpandorreen historiari buruz

Lehen lanetik gure kanpandorreen historiari buruzko ideia batzuk atera ditzakegu. Hasteko, Erdi Aroko dorre gutxi iritsi dira gaur egun arte, eta, nolanahi ere, azken fasekoak dira, Gotiko Berantiarrekoak. Onik gelditu ziren eraikin erromaniko urriek ez zuten kanpai-horma soil bat ere izan. Zumetxagako ermitarena berantiarra da, Bakioko San Pelaio dorrea legeaz, eta Abrisketako eraikin apalak kanpairik ere ez du.

Behe Erdi Aroaren amaieran, gotiko berantiarreko dorre batzuk eraiki ziren, hala nola Plentzia, Nabarniz eta Erandiokoak, terraza zabalekin burutuak, kasuren batean gailurreriaz inguratuta (geroago teilatuez estaliak), seguruenik Bilboko Santiago parrokiak izango zuen antolamendu bera, Hogenbergen grabatuaren arabera, edo, ziur aski, Arrietako parrokiarena, geroago handitua. Nolanahi ere, planteamendu hori ez zen oso egokia gurutzeak eta haize-orratzak hartzeko, teilatu lauek azalera handia izatearen ondorioz zorutik ikusezinak izango baitziren, altuera handia ematen ez bazitzairen behintzat. Horrek, automatikoki, tximisten benetako iman bihurtuko zituen, eta, hala, onura baino kalte gehiago eragingo zuten. Informazio gutxiago dugu gaur egun oraindik ere egitura modernoagoei eusten dieten beste kanpandorre batzuen fuste gotikoak nola errematatu ziren jakiteko, hala nola Zornotzakoak, Ermukoak eta Lekeitiokoak.

En torno a la historia de nuestros campanarios

Del primer trabajo podemos extraer algunas ideas sobre la historia de nuestras torres campanario. De entrada, hemos de advertir que pocas torres medievales han llegado a nuestros días y en todo caso corresponden a la fase final, al Tardogótico. Los escasos edificios románicos supervivientes no llegaron a contar ni con una simple espadaña. La de la ermita de Zumetxaga es tardía, como la torre de San Pelayo de Bakio, y el modesto edificio de Abrisketa carece incluso de campanas.

A finales de la Baja Edad Media se levantaron algunas torres tardogóticas como las de Plentzia, Nabarniz o Erandio, rematadas en amplias terrazas, en algún caso cercadas por cresterías (cubiertas más tarde por tejados), la misma disposición que presentaría probablemente la parroquia de Santiago de Bilbao a juzgar por el grabado de Hogenberg o seguramente la de la parroquia de Arrieta, recrecida posteriormente. En cualquier caso, este era un planteamiento poco apto para acoger cruces y veletas que, dada la amplitud de la superficie de sus azoteas, resultarían invisibles desde el suelo, salvo que se les dotase de gran altura, lo que automáticamente las convertiría en auténticos imanes para los rayos, causando más perjuicios que beneficios. Menos información disponemos sobre cómo se remataron los fustes góticos de otros campanarios que aún hoy sustentan estructuras más modernas como los de Amorebieta, Ermua o Lekeitio.

La alternativa más modesta, adecuada para el ámbito rural, sería construir un sencillo tinglado de madera al estilo del de la ermita de Illoro (Markina-Xemein), del que colgaban las campanas, precarie-
dad que difícilmente se remataría con el lujo de una sencilla veleta.



Elorrioko Basilikako kanpandorra Sevillako Giraldan inspiratu zen.
El campanario de la Basílica de Elorrio se inspiró en la Giralda de Sevilla.

La situación no cambiaría significativamente en la etapa renacentista a juzgar por la amplitud de torres como la de Orduña o Fruniz, que pretendiendo ofrecer un pórtico para cobijar la portada de los pies reincidían en las mismas limitaciones de las torres tardogóticas, situación que en parte se prolongó durante el barroco del siglo XVII, en el que el formato de torre ancha de planta más o menos cuadrada (Gordexola, Kortezubi o Goikolegea) convivió -al menos en un caso- con una torre "adelantada" a su tiempo (la de la Basílica de Elorrio finalizada en 1672), que optaba por un diseño que podríamos definir de manera un tanto tosca, pero gráfica, como telescópico, pues incorporaba sobre el cuerpo de campanas otros de menores dimensiones que al reducir su sección y culminar en media naranja, se prestaban más al lucimiento de elementos de remate. Volveremos sobre ella más adelante.

Aukerarik apalena, landa-eremurako egokia, Illoroko (Markina-Xemein) ermitakoaren estiloko zurezko oholtza soil bat eraikitzea izango zatekeen, kanpaiak zintzilik zituela; prekaritate hori nekez biribilduko zatekeen haize-orratz soil baten luxuarekin.

Egoera ez bide zen nabarmen aldatu Errenazimentuko etapan, Urduñako, Fruizko eta beste hainbat lekutako dorreen zabaltasunak pentsarazten duenez; izan ere, oinetako atelada babesteko arkupe bat eskaini nahian, dorreek gotiko berantiarreko muga berberak zituzten, eta egoera horrek, hein batean, XVII. mendeko barrokoan iraun zuen, non oinplano karratuagoko dorre zabalaren formatua (Gordexola, Kortezubi edo Goikoleaga), aldi berean -gutxienez kasu batean- bere garaiari "aurrea hartutako" dorre batekin batera bizi izan zen (1672an amaitutako Elorrioko Basilikako dorrea), zeinak diseinu, modu zakar samar baina grafiko batean esanda, teleskopiko baten alde egin zuen; kanpaien gorputzaren gainean tamaina txikiagoko beste batzuk hartzen baitzituen, sekzioa murrizten zutenez eta laranja-erdiarekin burutzen zirenez, erremate-elementuen luxuari emana-goak zirenak. Geroago itzuliko gara horretara.



San Antongo dorre barrokoa, Juan de Iturburuk diseinatu.
Torre barroca de San Antón, diseñada por Juan de Iturburu.

Berritasuna ohikoagoa bihurtu zen XVIII. mendearen bigarren herenean, Ibero, Iturburu eta Martín Carrera arkitektoei esker, besteak beste; ez baitzuten zalantzarik izan elementuei dorre lirainagoekin desafio egiteko (hala nola Otxandio, Berriz, Zeberio eta aurrez aipatutako Bilboko San Antongoa); haiei, gainera, linterna kupulatuak erantsiz. Ausardia horrek atsekabe askori aurre egin beharra ekarri zuen, zeren eta Benjamin Franklinek mende horren beraren erdialdean asmatu zuen tximistorratza ez baitzen ehun urte inguru geroago arte ezarri (Begoñako Basilikakoa, lehendabizikoa, 1862koa da). Ekaitzen deskarga elektrikoek eragindako ezbehar ugariak gorabehera, esan daiteke, laster arrazoituko dugun moduan, Bizkaiko haize-orratzak garatzeko eta zabaltzeko une garrantzitsua izan zela hura.

Haize-orratzak, oso gutxi aztertutako gaia

Baieztape hori arriskutsua izan daiteke; izan ere, dokumentu bidezko berrikuspen espezifikorik eta landa-lan zorrotzik ezeari -ekimen xume honen helburua gaingaitzen duten zereginak-, ez da batere erraza elementu horiek zehaztasunez datatzea. Baina diskurtsoaren maila honetan, bertigorik ez dugunez, gu ere ausartak izaten saiatuko gara, gure sinesgarritasuna arrisku handiegian jarri gabe. Hasteko, argitaratu gabeko gaia denez eta orain arte ikertzaileen interesik ia batere piztu ez duenez, aitortzen dugu oraindik ez dugula informazio egokirik, eta informazioa, kasu askotan, parroketako fabrika-liburuetan edo, beste kasu batzuetan, udal-kontuetako liburuetan erre-

La novedad se fue haciendo más habitual durante el segundo tercio del siglo XVIII, merced a arquitectos como Ibero, Iturburu o Martín Carrera, que no dudaron en desafiar a los elementos con torres más esbeltas (como las de Otxandio, Berriz, Zeberio o la ya mencionada de San Antón de Bilbao), a las que se incorporaban, además, linternas cupuladas. Esta osadía supuso tener que afrontar muchos disgustos, pues el pararrayos, descubierto por Benjamín Franklin a mediados de ese mismo siglo, no llegaría a implantarse por estos lares hasta aproximadamente cien años después (en la Basílica de Begoña el primero data de 1862). Pese a la infinidad de percances causados por descargas eléctricas generadas por tormentas, bien podría considerarse a este período, según razonaremos en breve, como el momento estelar en el desarrollo y difusión de las veletas vizcaínas.

Las veletas, un tema escasamente estudiado

Esta afirmación podría parecer algo arriesgada pues, a falta de una revisión documental específica y un trabajo de campo exhaustivo, tareas que desbordan el objetivo de esta modesta iniciativa, no resulta nada fácil datar estos elementos con alguna precisión. Pero situados ya a estas alturas del discurso, dado que no sufrimos de vértigo, también nosotros trataremos de ser algo audaces, sin arriesgar en exceso nuestra credibilidad. De entrada, dado que se trata de un tema inédito, que hasta ahora apenas ha despertado el interés de los investigadores, confesamos que no disponemos aún de la información pertinente que en muchos casos suponemos debió de quedar registrada en los libros de fábrica parroquiales, o en los de cuentas municipales en su caso. A título orientativo de cuál es el estado de la cuestión actual, servirá como dato ilustrativo el de que en el borrador del Catálogo Monumental de la Diócesis de Bilbao hemos localizado mención de la existencia de una treintena de veletas en las torres de nuestras iglesias, pero solamente se describe una de ellas: la de la parroquia bilbaína de San Antonio Abad, famosa por el giraldillo que la remata.



Zornotzako Santa Maria parrokia, fuste gotikoaren gaineko kanpandorre barrokoa.
Parroquia de Santa María de Amorebieta, campanario barroco sobre fuste gótico.

gistratuta geraturik izango dela uste dugu. Gaur egungo auziaren nondik norakoak azaltzeko, datu adierazgarria izango da Bilboko Elizbarrutiko Monumentu Katalogoaren zirriborroan gure elizetako dorreetan hogeita hamar bat haize-orratz daudelako aipamena aurkitu dugula, baina horietako bat besterik ez dela deskribatzen: Bilboko San Antonio Abade parrokiakoa, hura burutzen duen giraldo txikiagatik ezaguna.

Dakigunaren arabera, gai honi buruzko azterlanen urritasuna nabarmena da: Ricardo Becerro de Bengoaren artikulua bat gogoraziko dugu, 1881ean Euskal-Erria aldizkarian argitaratua, Eloreko basilikako kanpandorrea errematatu zuten ondoz ondoko giraldei buruzkoa. Halaber, Mario Granderen artikulua bat aipa dezakegu, 1959ko abuztuaren 28an Bilboko Erakustazokaren egunkari ofizialean argitaratua, Bizkaiko haize-orratzetako buruzkoa. Aipamen berezia merezi du Juan de Amestti Mendizabalek Bizkaiko Enkarterriko Forja Artistikoari buruz egindako lan interesgarri eta sakonak. Lan horrek marrazki zehatz eta baliotsuak ditu, nahiz eta, ikuspegi etnografikotik begiratuta, ez duen egiten laguntza handia emango ligukeen dokumentu-iturrien hustuketarik. Baina horraino edo pixka bat gehiagoraino iristen da bibliografia ezaguna.

Gainera, lan honi ekitean, ohartu ginen ez gurela xehetasunezko dokumentu grafikorik gure lurraldeko kanpandorreen goialdeko elementuen diseinua sakonki aztertzeke; izan ere, eraikuntza horien goreneko altuera handiak zailago bihurtzen du behaketa, teleobjektiboen edo prismatikoen bidez ez bada. Eta batzuetan horrela ere ezin da, bideen estutasunak eragindako perspektibarik eza dela eta. Horri dagokionez, droneak erabiltzeak aurreikuspen onak dakartza etorkizunerako. Gure ekarpena, beraz, ezin da inola ere sistematikotzat jo, baizik eta "dastatzeko menu" soil gisa, zeinak lortu baitu ikertzaile honen gogoaz zabaltzea, eta espero dezagun irakurleari dagokionez ere gauza bera lortzea.

Dena den, erreperitorio grafiko hori izango bagenu ere, aldez aurreko azterketarik ez izateak eragotziko liguke modu sinesgarrian datatutako zenbait eredu izaten, ale argitaragabeen konparazioak egiteko eta, gutxi gorabehera, datak ezartzeko oinarri izan litezkeenak, oso gutxi baitira eza-gutzen diren eta obraren euskarrian bertan datatuta dauden haize-orratzak. Dorreak eraikitzeari buruz pixka bat gehiago ezagutzen da, esan bezala, baina kontuan hartu behar da haize-orratz bat egoteak ez duela bermatzen hura dagoen dorre edo teilatuaren aldi berekoa denik. Horrez gain, ez da ahaztu behar kasu askotan diseinu tradizionalei lotutako errementarietako edo olagizonek egindako lanak izan daitezkeela, hamarkada askotan iraun dezaketenak. Laburbilduz, eremu berria da, eta mereziko du etorkizunean jorratzea.



Tabiratik (Durango) datorren haize-orratza.
Veleta procedente de Tabira (Durango).

Por lo que sabemos la escasez de estudios relativos sobre este particular tema es palmaria: recordamos así al respecto un artículo de Ricardo Becerro de Bengoa publicado en la revista Euskal-Erria en 1881, relativo a las sucesivas girdaldas que remataron el campanario de la basilica de Elorrio. También podemos mencionar un artículo de Mario Grande dedicado a las veletas de Vizcaya publicado en el diario oficial de la feria de Muestras de Bilbao el 28 de agosto de 1959. Mención especial merece el interesantísimo y exhaustivo trabajo de Juan de Amesti Mendizabal sobre Forja Artística en las Encarnaciones de Bizkaia, que cuenta con precisos y valiosos dibujos, aunque dado el enfoque etnográfico del mismo, no está apoyado por un vaciado de las fuentes documentales que nos hubiese sido de gran ayuda. Pero poco más que hasta ahí llega la bibliografía conocida.

Además, al abordar este trabajo advertimos que no disponíamos de documentos gráficos de detalle que nos permitiesen analizar en profundidad el diseño de los elementos que rematan los campanarios de nuestro territorio, pues la gran altura a la que se coronan estas construcciones no facilita su observación, si no es a través de teleobjetivos o prismáticos. Y a veces ni eso, dada la falta de perspectiva derivada de la estrechez de los viales. A este respecto, el uso de drones augura buenas expectativas para el futuro. Nuestra aportación, por consiguiente, en modo alguno puede calificarse como sistemática, sino como un simple “menú degustación” que ciertamente ha conseguido abrir el apetito de este investigador, y esperemos que también lo haga con el lector.



Urduñako Santa Mariako haize-orratza, atzean Gorobel mendilerroa duela.
Veleta de Santa María de Orduña con la Sierra Salvada al fondo.

De cualquier forma, aunque contáramos con ese repertorio gráfico, la inexistencia de estudios previos no nos permitiría disponer de una serie de modelos datados fehacientemente que pudieran servir de base para realizar comparaciones y establecer fechas, siquiera aproximadas, de los ejemplares inéditos, pues son muy escasas las veletas conocidas que están fechadas en el propio soporte de la obra. Algo más se conoce sobre la construcción de las torres como ya se ha dicho, pero hay que tener en cuenta que la existencia de una veleta no necesariamente garantiza que esta sea coetánea de la torre o tejado sobre la que se alza. Eso, por no mencionar que en muchos casos bien podrían tratarse de obras realizadas por herreros o ferrones apegados a diseños tradicionales, que se pueden perpetuar a lo largo de muchas décadas. En suma, estamos ante un campo inédito que bien merecerá ser abordado en el futuro.

Udal haize-orratzei buruz

Diskurtsoaren hariari berriro helduz, gure hipotesia eliza-eraikinetako haize-orratzei lehentasuna ematearen aldekoa bada, ez da soilik gurea arte erlijiosoari lotutako ibilbidea delako, baizik eta eraikin horiek hainbat mendez hartu zitelako aurre komunitateak eta komunitatearentzat, kasu horretan izaera zibil hutsarekin, eraikitako hurrengo eraikinei: udaletxeei. Gogora dezagun Bizkaiko lehen udaletxeak ez zirela eraiki Erdi Aroaren amaiera arte edo Errenazimentuaren hasiera arte, eta hori Jaurerriko hiribilduei eta hiriari dagokienez.

Fenomeno hori gertatu zen auzotarren batzar komunitarioetatik edo kontzeju irekietatik -hain zuzen, arkupeetan edo elizen barruan egiten ziren, eta hortik datorkie gure landa-udalerriei elizate izen tradizionala- kontzeju itxira edo ordezkaritza bidezkoa pixkanaka egin zen iragatearen ondoren, baita 1480an Errege Katolikoek horretarako zituzten xedapenek, 1500ean errepikatuek, bultzatuta ere. Ana Isabel Leisek egindako azterketaren arabera, gure hiribilduen ia erdiek XVI. mendean jarri zituzten udaletxeak, eta horietako seik, gutxienez, lehen erdian jarri zituzten: Balmasedak, Bilbok, Gernikak, Lekeitiok, Urduñak eta Markinak; eta beste hiruk bigarrenean (Portugaletek, Plentziak eta Durangok).

Horietatik, zutik dirauten bakarrak Markinako udaletxea (1542) eta Urduñakoaren dorrea dira; azken hori, dirudienez, XV. mendearen amaieraz geroztik udaletxearen egoitza zen, eta 1535eko sutearen ondoren berreraiki zuten. Durangokoa, XVI. mendearen bigarren erdian eraikia, nahiko erreformatua izan zen XVIII. mendean, eta berriro XX. mendean. Dokumentu-iturrietan argitaratutako laburpenek ez dute ezer esaten haize-orratzei buruz, baina lanbide honetan dihardugunok ondo dakigu ez dugula beti dakigun guztia kontatzen, azterlanen mugak ez gainditzearen, eta, beraz, askotan iturriak berriro kontsultatu behar izaten ditugu -edo behintzat gure oharrak, zehatzak izan baginen-, geroago ikerketa berrietarako interesatuko zaizkigun xehetasunak berreskuratzeke.

Argitaratuta dagoenaren ondorioz, badakigu Markinako udaletxeak kanpandorre erantsi bat duela, baina askoz geroago eraikia. Urduñako udaletxearen barruan kontserbatzen denak, berriz, 1538 inguruan kanpai bat zeukan gutxienez, nahiz eta kasu horretan ere ez dagoen haize-orratzen berariazko aipamenik. Gaur egungo kanpai-horma, bere soiltasuna gorabehera, seguru asko 1773an amaitutako berrikuntzan egindakoa da. Data egokia da hura burutzen duen gurutze lirain



Otxandioko udaletxea, goialdeko bi haize-orratzekin.
Ayuntamiento de Otxandio, coronado por dos veletas.

A propósito de las veletas municipales

Retomando de nuevo el hilo del discurso, si nuestra hipótesis opta por dar prioridad a las veletas de edificios eclesiásticos no es solo porque la nuestra sea una trayectoria ligada preferentemente al arte religioso sino porque estas construcciones se adelantaron en varios siglos a los siguientes edificios levantados por y para la comunidad, esta vez con carácter exclusivamente civil: los ayuntamientos. Recordemos al efecto que las primeras casas consistoriales vizcainas no se construyeron hasta fines de la Edad Media o comienzos del Renacimiento, y esto en lo relativo a las villas y ciudad del Señorío.

Este fenómeno tuvo lugar tras el paulatino paso desde las asambleas comunitarias de vecinos o concejo abierto –celebradas precisamente en los pórticos o el interior de las iglesias, de donde deriva la denominación tradicional de anteiglesias para nuestros municipios rurales– al concejo cerrado o por delegación, así como por las disposiciones al efecto de los Reyes Católicos en 1480, reiteradas en 1500. Según estudió Ana Isabel Leis, casi la mitad de nuestras villas se dotaron de consistorios en el siglo XVI, y al menos seis de ellas los hicieron en su primera mitad: Balmaseda, Bilbao, Gernika, Lekeitio, Orduña y Markina, y otras tres en la segunda (Portugalete, Plentzia y Durango).



Urduñako udaletxeko kanpai-hormak hiriko armarria zeukan haize-orratza galdu zuen.
La espadaña del ayuntamiento de Orduña perdió su veleta con el escudo de la ciudad.

De estos solo subsisten en pie el ayuntamiento de Markina (1542) y la torre del de Orduña, que al parecer ya funcionaba como sede del consistorio desde fines del siglo XV y fue reconstruida tras el incendio de 1535. El de Durango, erigido en la segunda mitad del siglo XVI, fue bastante reformado en el siglo XVIII y de nuevo en el XX. Los extractos publicados de las fuentes documentales nada dicen sobre la existencia de veletas, pero quienes nos dedicamos a este oficio sabemos bien que no siempre contamos todo lo que sabemos por no desbordar los límites de los estudios, de manera que a menudo nos vemos obligados a volver a consultar las fuentes –o al menos nuestras notas si fuimos minuciosos– para recuperar detalles omitidos que a posteriori nos interesarán para nuevas investigaciones.

eta arinarentzat, zeinak konopio hirustadun formako lau tarte dituen, langetak lotzen. Orain dela gutxi arte, hiriko armak zituen haize-orratz bat zebilen biraka haren azpian. Gaur egun, erretiratuta dago, eta, nolanahi ere, garai berekoa izango zen.

Bilboko hiribilduaren kasuan ere, informazioa hutsaren hurrengoa da. 1389an, Bilbok bazuen kontzejuaren lehenengo etxea, eta hari buruz dakigun bakarra da ondorengoek kokaleku bera izan zuela, San Anton elizaren ondoan. 1535ean berrituta zegoen, baina eraikin hark bizitza laburra izan zuen, 1553an uholde batek eraman baitzuen, eta hirurogei urte geroago berriro gertatu zen gauza bera. Horretarako eraikitako eta 1683an amaitutako hirugarren eraikinetik, ilustrazio bat dugu, XIX. mendera arte iraun baitzuen, halako moldez non Jenaro Pérez Villaamilek bere grabatuetako batean erreproduzitu ahal izan zuen, eta bertan gutxienez haize-orratz bat (agian bi) ikus daiteke, baina eraikuntzaren une berekoa –XVII. mendearen bigarren erdikoa– dela ziurtatzeko behar adinako xehetasunik gabe.

Parrokiak eta udaletxeak etengabe zaharberritu eta berritu izanak ez du asko laguntzen haize-orratzek gure teilatuak noiztik apaintzen dituzten jakiteko eginahalean. Pentsatzekoa da Erdi Aroan aleren bat egongo zela; haien forjak kostu handia ekarriko zuen arren, haien baliagarritasunak justifika zezakeen hori. Hala ere, komeni da oinarrizko funtzioaren balioa erlatibizatzen duen gogoeta bat gehitzea. Ez da ahaztu behar gure arbasoen ehuneko handi batek gurea baino mugikortasun urriagoa izan zuela bere bizitzan zehar. Horregatik, ezbaierik gabe, oso ondo ezagutzen zuten beren bizitzak zein ingurunetan garatu ziren, eta, gainera, naturarekin askoz ere lotura handiagoa zuten guk baino, bereziki *“urbanita”* garenek baino, eta, beraz, ziurrenik ez zuten artefaktu horietako askorik beharko haizeak nondik jotzen zuen jakiteko, bizi-esperientzia zabala baitzuten horretarako, eta erreferentzia ugari.

Beste gogoeta batzuk egin beharko lirateke haien erabilera azaltzeko. Aipatu dugu haien *“publizitate”* arloko baliagarritasuna, eta agian pentsatu beharko genuke, halaber, elementu horiek eraikuntza baten osagarri zirela, pastel baten ginga gisa, eta, ondorioz, eraikinaren sustatzaileak gizartean zuen posizio altuaren sinboloa izango zirela, akaso. Horrek azalduko du gero eta maizago agertu izana jauregietan, txaletetan eta landetxeetan, Aro Garaikideak aurrera egin ahala. Horri dagokionez, izaera pribatuko arkitektura zibilean ia-ia ez ziren sartu ere egin gehigarri horiek, argien mendea oso aurreratua izan arte.



Bilboko udaletxe berriko haize-orratza, 1892.

Veleta del nuevo ayuntamiento de Bilbao, 1892.

